

ZARAUTZEN

Zarauzko jaiak San Pelaio bigarrenen bukatzen badira ere, santuaren izena duen auzoan, berriaz, orduantxe daude festak pildan. Bi ohiturei gogor eutsi diete San Pelaiokoek: oilasko biltzea eta Mutil Ardoa. Gazteak izango dira aurtan ere ospakizun horien protagonista nagusiak, euren dantza eta oihuekin alaituko bait dituzte zarautzarren bihotzak.

K. GOITIA / ZARAUTZ

Zarauzko jaietan, San Pelaio auzoan, aspaldiko bi ospakizun gaur egun arte mantendu izan dira: Mutil Ardoa eta oilasko biltzea. Mutil Ardoa noiz hasi zen inork ez daki eta urte askotxo dira norbait hartaz gogoratzeke. San Pelaio auzoko gazteek antolatzen dute urtero Mutil Ardoa dirua biltzeko asmoz.

Ekitaldian ardoa da protagonista eta bertara hurbiltzen direnek dute zurrut egiteko aukera. Barrika bat, ardoaren inguruan gazta, ardoa eta gosea asetzeko mokadu ugari jan eta edaten dira. Borondatez zerbait ematea edo rifaren bat erostea ohitura da.

Oilasko biltzea indartsu oraindik



Eguerdirako oilasko mordoska biltzen dute.

I. MURUA

Garai batean Mutil Ardoaren antolatzaileak gizonezkoak eta mutilzaharrak baino ez ziren, itxura denez, ezkondu ondoren erabat zintzo bihurtzen zirelako.

Garai batean antolatzaileak gizonezkoak baino ez ziren, eta mutil zaharrak. Itxura denez, ezkondu zeudenak erabat zintzo bihurtzen ziren ezta egunean. Mutil Ardoaren antolatzaileak uztailko lehen igandean hautatzen dira zozketa eginez, bai lehendakaria bai juntako beste hamar partaideak.

Oilasko biltzea da aspalditik datorren beste ohitura. Gipuzkoako beste zenbait herritan ere joaten dira gazteak baserri baserri dantza eginez. Zarautzen Mutil Ardoko neska mutilek bi taldetan banatzen dira,

Etxe bakoitzean dantza bera egiten dute, zortzi edo hamar lagun iladan jarri eta lasai hasi arren, berehala hasten dira infernuko deabrua izutzeko moduko oihu eta saltoak.

batzuek trenbidetik gora dauden baserrietara joaten dira eta gainontzeak mugatik behera gelditzen direneta.

San Pelaio bigarrenen goizeko bostetan biltzen dira herriko gazteak olarru eta baratzuri zopa jateko. Seiak inguruan, eguzkiarekin batera, ateratzen dira bi talde hauek esku soinu, txistua eta danbolina joaz. Baserrietara heltzerakoan egiten duten lehen gauza itxaferoari su ematea da.

Etxe bakoitzean dantza bera egiten dute, zortzi edo hamar lagun hileran jarri eta lasai lasai hasten dira. Berehala hasten dira infernuko deabrua izutzeko moduko oihuak eta saltoak, zuzendariak erritmoa markatzen duen bitartean. Baserriarrek esker onez oilasko edo konejuren bat ematen diete dantzari izerditiuei, nahiz eta azkenaldi honetan dirua emateko ohitura indartu egin den.

Urte horretan baserriarren bat hil bada, haren etxera heldutakoan ez da dantzarik egiten. Oihuak eta saltoak otortzari lekua uzten diote, Gure Aita eta Agur Maria errezatzeko. Eguerdiko ordubiak izaten dira oilasko biltzea bukatzen denean eta ordurako badituzte Mutil Ardokoek zenbait oilasko eta koneju makilatik zintzilik.

HASTEKO

Musika plazan

Puztailuak
eta
tren elektrikoa

12:00

GAINERAKO

Inurritza zelaian

Erromeria

18:00

POSTRERAKO

Musika plazan

Suzko zezena

01:30

IRATXOAK

haur jantziak

Ipar kalea 4 ZARAUTZ

Nagore
mertzeriaSanta Marina 26 13.05.23
ZARAUTZMUSAS
LENTZERIAZuhaizti kalea 4 behea
ZARAUTZHizki o.k.
inprimategiaHerriko Barra, 8 13.00.97
20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)OTAMENDI
TABERNAMusika plaza 13.27.02
ZARAUTZ★★★★★★★★★★★★★
FOTO★★argazkilaria
★★★★★
XantiBixkonde Kalea, 11 - Tfno. 83 12 66
zarautz

ML LOPETEGI altzariak

Denda: 83.04.37 Lantokia: 83.00.51
Zigordia kalea, 47 ZARAUTZKARLOS ARGIÑANO
Jatetxea Hotela

Mendilauta, 13 / Tfna.: (943) 13.00.00 / ZARAUTZ

Enara
Albaitari
kontsulta

Ordutegia

10.00-13.00 / 17.00-20.00
Larunbatetan: 10.00-13.00

Amorru txertaketa

Larrialdi zerbitzua 24 o.

Zuhaizti plaza 4 13.16.75
ZARAUTZGelako
altzariakgaur egungo altzariak
klasikoak eta gazteentzat
armairuak "zure" neurri
dekorazio proiektuak
eskatu prezio eta aurrekontuak

Nafarroa kalea (Sanz-enea) / Tfna.: 83.55.22 / ZARAUTZ